



Usurbilgo Udala



2015EKO EKAINAREN 13AN EGINDAKO UDALBATZAREN ERAKETA BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka
Xuban Zubiria Elexpe
Jone Urdampilleta Urdampilleta
Iñaki Ugarte Agirre
Irene Garcia Palacios
Miren Josune Estella Arranz
Jose Mari Iribar Zapirain
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Andoni Atxega San Sebastian
Carlos Perez Fraisoli
Fermin Orue-Echevarria Iturri

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel

Kontu-hartzailea: Karmele Lizaso Ubera

Eguerdiko 12:00etan batzarrari hasiera ematen zaio.

Usurbilen, 2015eko ekainaren 13an, eguerdiko 12:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udala eratzeko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

1.- KORPORAZIO BERRIAREN ERAKETA.

Idazkariak saioaren hasiera deklaratu eta Hauteskunde Legearen 195 artikulua dioena irakurri du.

Artikuluak hau dio:

“1. Udalbatzak saio publikoan eratuko dira, hauteskundeak izan eta hogeigarren egunean, baldin eta aurkeztu ez bada hauteskundeekiko auzi errekurtsorik, hautatutako zinegotziak izendatzearen kontra. Aldiz, errekurtsoren bat aurkeztu bada, hauteskundeak egin eta berrogeigarren egunean eratuko da Udalbatza.



Usurbilgo Udala



2. Horretarako, Adin Mahaia eratuko da honako kide hauekin: ekitaldian agertutako hautetsi zaharrena eta gazteena. Mahaiko idazkari bezala Udalbatzaren idazkariak berak jardungo du.

3. Mahaiak egiaztatu egingo ditu aurkeztutako kredentzialak edo hautetsien nortasunaren akreditazioak, Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeak Udalera bidalitako ziurtapenen arabera.

4. Aurreko operazioa eginda, Mahaiak eratutzat jo du Udalbatza, baldin eta zinegotzi hautetsien gehiengo absolutua badago. Aipatu gehiengorik ez badago, bi egun beranduago bilkura egingo da, eta han eratuta geratuko da Udalbatza, edozein dela ere bertaratutako zinegotzien kopurua.”

Argibideen ostean, eraketari ekin diote.

Kasu honetan, adin-mahaia honela osatu da:

Zinegotzi adinekoena: Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Zinegotzi gazteena: Xuban Zubiria Elexpe.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Jarraian, idazkariak kredentzialak irakurri ahala zinegotzietan beren eserlekua hartu dute.

Hamahiru zinegotziak agertu direnez, zinpeko aitorpenari ekin zaio.

Idazkariak, zinpeko aitorpenari buruz adierazi du legeak diola Konstituzioari zin egin behar zaiola eta ezinbesteko baldintza dela kargua hartzeko, hori egin ezean ezingo lukeela kargua hartu eta alkatearen hautapenean parte hartu ere ez.

Idazkariak zinegotzi bakoitza izendatu du eta hauek zin egin dute, hurrenkera honetan:

Patxi Xabier Arregi Iparragirre: “Bai, legeak hala behartuta hitz ematen dut”.

Alaitz Aizpurua Labaca: “Bai, legeak hala behartuta hitz ematen dut”.

Xuban Zubiria Elexpe: “Bai, legeak hala behartuta hitz ematen dut”.

Juana Maria Urdampilleta Urdampilleta: “Bai, legeak hala behartuta hitz ematen dut”.

Iñaki Ugarte Aguirre: “Bai, legeak hala behartuta hitz ematen dut”.

Irene María Concepción García Palacios: “Bai, legeak hala behartuta hitz ematen dut”.

Miren Josune Estella Arranz: “Bai, legeak hala behartuta hitz ematen dut”.



Usurbilgo Udala



Jose Mari Iribar Zapirain: “Bai, legeak hala behartuta hitz ematen dut”.

Miren Josune Urkola Larrarte: “Bai, legeak hala behartuta eta ezinbestean hitz ematen dut”.

Mirari Azurmendi Sorazu: “Bai, onartzen dut legeak hala behartuta”.

Andoni Atxega San Sebastián: “Bai, onartzen dut legeak hala behartuta”.

Carlos Pérez Fraisoli: “Bai, onartzen dut legeak hala behartuta”.

Fermin Orue-Echevarria Iturri: “Bai, hitz ematen dut.”

Adin-mahaiaren lehendakariak Udala eratutzat jo du hitz hauekin: “Udala eratuta dago”.

Udala eratu ondoren, alkatearen hautaketari ekin zaio.

2.- ALKATEAREN HAUTAKETA ETA JABETZA HARTZEA.

Idazkariak Hauteskunde Legearen 196 artikulua irakurri du, alkatearen hautaketari dagokiona. Honela dio:

“Udalbatzaren eraketa bilkura berean, alkatea hautatzeari ekingo zaio, hurrengo prozedura honi jarraituz:

- a. Zerrenda-buru diren zinegotzi guztiak izan daitezke izangai.
- b. Haietakoren batek zinegotzien botoen gehiengo absolutua lortzen badu, hautetsi izendatuko da.
- c. Inork ez badu gehiengo absolutua lortzen, alkatea izendatuko da, udalerrian herritarren botoen kopuru handiena lortu duen zerrendako burua den zinegotzia. Berdinketa gertatuz gero, zozketa eginez ebatziko da.”

Kasu honetan, izangaiak dira:

Patxi Xabier Arregi Iparragirre
Miren Josune Urkola Larrarte
Fermin Orue-Echevarria Iturri

Fermin Orue-Echevarriak adierazi du bera ez dela hautagai izango.



Usurbilgo Udala



Bozketa sistemari dagokionez, idazkariak adierazi du bozketa ahoz egitea planteatzen dela, zinegotzien izenak alfabetikoki ordenatuta esanda. Baten batek bozketa sekretua izatea nahi balu, nahi hori agertu beharko luke eta gehiengo osoz onartu beharko litza-teke bozketa sekretua izatea.

Ez du inork bozketa sekretua izaterik eskatu.

Jarraian, lehendakariak zinegotzien izenak esan ditu eta bakoitzak bere botoa eman du.

Alaitz Aizpurua Labaca: Nire bozka Xabier Arregirentzat

Patxi Xabier Arregi Iparragirre: Nire bozka Xabier Arregirentzat

Andoni Atxega San Sebastian: Nire bozka Josune Urkolarentzat

Mirari Azurmendi Sorazu: Nire bozka Josune Urkolarentzat

Miren Josune Estella Arranz: Nire bozka Xabier Arregirentzat

Irene María Concepción García Palacios: Nire bozka Xabier Arregirentzat

Jose Mari Iribar Zapirain: Nire bozka Xabier Arregirentzat

Fermin Orue-Echevarria Iturri: Nire bozka zuria

Carlos Pérez Fraisoli: Nire bozka Josune Urkolarentzat

Iñaki Ugarte Aguirre: Nire bozka Xabier Arregirentzat

Juana Maria Urdampilleta Urdampilleta: Nire bozka Xabier Arregirentzat

Miren Josune Urkola Larrarte: Nire bozka Josune Urkolarentzat

Xuban Zubiria Elexpe: Nire bozka Xabier Arregirentzat

Jarraian, idazkariak emaitzak irakurri ditu.

Emandako bozka kopurua: 13

Baliodun botoak: 13

Zuriak: 1

Patxi Xabier Arregi Iparragirrerentzat: 8 boto

Miren Josune Urkola Larrarterentzat: 4 boto



Usurbilgo Udala



Emaitzak kontutan hartuta, mahaiko lehendakariak adierazi du Usurbilgo alkatea 8 botoekin Patxi Xabier Arregi Iparragirre proklamatzeko dela.

Txaloak izan dira alkate berriarentzat.

Idazkariak adierazi du alkateak kargua hartzeko, indarrean dagoen legeak Konstituzioari zintzuz egin behar zaiola esaten duela eta ezinbesteko baldintza dela kargua hartu ahal izateko.

Hori horrela, Xabier Arregik adierazi du: "Berriz ere, legeak hala behartuta, hitz ematen dut".

Mertxe Aizpuruak, kargua uzten duen alkateak, Xabier Arregi alkate berriari karguaren ikurra eman dio hitz hauek esanez: "Hauxe da hemen Usurbilen daukagun aginte makila, ez da makil bat, zumezkoa da, beraz, xumea da bere horretan. Gainera tinkotasuna erakusten duen zerbait da, tinkotasuna eta malgutasuna era berean, hain beharrezkoak diren bi ezaugarri horiek agintea aurrera eraman ahal izateko. Egia da nahiko arina ikusten dudala, baina zuk hartzen duzun zama hemendik aurrera ez da hain arina izango, baina tira.

Zorionak, dudarik ez daukat lan bikaina egingo duzula lau urte hauetan, herriaren babesa baduzu, lantalde on bat duzu, gogoia baduzue, gaitasuna baita ere, beraz, zorte on bat."

Xabier Arregik, alkate kargua hartu berritan hitz hauek esan ditu:

"Eskerrak eman nahi ditut hasterako.

Eskerrak bihotzez herritarroei gudan jarri duzuen konfiantzagatik, eta eskerrak baita ere eskaini diguzuen animo eta babesarengatik. Oraintxe bertan jasotzen ari garena izugarria da. Zorionak, bestalde, zinegotzi guztiei, herriak aukeratuak izatea handia da eta.

Alkatearen izaera ez zait unipersonala iruditzen, beste dimentsio bat du, eta ez dakit zenbateraino den egoki aipamen pertsonalak egitea. Sentimenduen nahas-mahas honetan, bakarrik esango dut ohore eta ardura handia dela niretzat besaulki honetan esertzea; Mertxe, zuk hain ondo okupatu duzun espazio hau hartzea. Lehen izandako alkateak datozkit... eta ondo gogoan ditut.

Hastera doa legealdi berri bat, eta herritarren borondatea agerian dago: udala gobernatzeko ardura EH Bilduren esku utzi duzue.

Adi entzun dugu herritarren hitza, eta badakigu Usurbil ez dela EH Bildu, udal-mahai honek erakusten duen bezala. Horregatik, gure izenari eta izanari leial izanda, biltzeko joera izango dugu, eta ez bereizteko. Jakingo dugu guztion artean, konfiantza osoa



Usurbilgo Udala



daukat, etiketak eta siglak alde batera utzi eta pertsonen arteko tratua zaintzen, komenientzia alderdikoien gainetik herriaren interes orokorrak lehenesten. Oraintxetik esaten dizuet elkarlanaren bidetik jo nahi dugula aurrera, eta EH Bilduko ordezkariok prest gaudela lankidetzan aritzeko zuekin guztiokin.

Udalgintza eta herrigintza, txanpon beraren bi alde dira guretzat. Eta motorra, benetako indarra, herritarren esku dago. Nolako jarrera hartzen dugun herritarrok, halakoxea izango da udala eta herria. Horretan badira bi eredu oso desberdin: animalien irudiak erabiliz, batari, kukuarena deituko diot, eta besteari txingurriarena.

Kukuak bere izena kantatzen du: kuku, kuku. Bere izena kantatu, eta besteren kabietara eramaten ditu bere arrautzak, besteren esku utziz bere ardura.

Txingurriak, ordea, komunitatea du presente, auzolana eta lankidetzat.

Zer izan nahi dugu?

Usurbildarrok maiz erakutsi dugu badakigula behar kolektiboei arduraz eta jarrera konprometituaz erantzuten. Horren adibide garbia da, esate baterako, hondakinen kudeaketan emandako erantzuna. Gai izan gara alternatiba eraikitzaileak eta iraunkorrak sortzeko, nor bere ardura asumitzeko. Jokabide txalogarri horren jabe ez da inor. Meritua guztiona da, eta jasotako laudorioak ere (asko eta ez nolana hikoak) guztiontzat dira. Baina, era berean, errauste-planta bezalako azpiegitura kutsakorren inposaketa datorkigunean, denoi dagokigu horri aurre egitea. Herri erantzuna eskatzen du horrek, eta hala erantzungo dugula ziur naiz.

Izaera kolektibo konprometituaren beste adibide bat da ikastolaren, herri-hezkuntzaren eta euskararen aldeko mugimendua, 2015ean gattunk esanez aldarrikatzen ari garena.

Ez, ez gara kukuak geure izenak soilik kantatzeko, ez gara kukuak geure ardurak besteren esku uzteko.

Lehen konstituzioaren aurrean eman dugu hitza, legeak behartuta.

Orain, kontzientziak aginduta, herriaren aurrean hitzeman nahi dugu.

Hitz ematen dizuegu zintzo eta latz saiatuko garela lanean, ilusioz eta gogoz, gure printzipioei muzin egin gabe, herritarroi entzun eta parte hartzeko aukerak emanez. Aniztasuna gure izatearen parte denez, eta parekidetasuna gure ipar, hitz ematen dizuegu herritarren artean ez dugula bereizkeriarik egingo, eta eskubide sozial guztiak errespetatuak izan daitezen saiatuko garela. Euskal Herri libre eta burujaberako bidean, erabakitzeko eskubidearen alde egingo dugula, bizikidetzat sendotzen ahaleginduko garela, bai eta oraindik preso edo ihesean daudenak geure artera ekartzen ere. Hitz ematen dizuegu, azken batean, Usurbilen jendarte justuago, solidarioago eta zorientsuago baten alde egingo dugula.



Usurbilgo Udala



Oraintxe, urte sasoi honetan, iritsi zaio kukuari mututzeko garaia. Gure garaia da. Herritar konprometitu eta sentiberena. Norbere izaera indibiduala zainduz, izaera kolektiboa sendotzeko garaia.

Izan ere, bagintunank, bagattunk, eta bagoztink.

Aurrera Usurbil!”

Txaloak izan dira.

Alkateak eskerrak eman ditu eta hitza eman die hasteko batzarkideei eta publikoari ondoren, baina inork ez dut hitzik hartu.

Amaitzeko, alkateak, esandakoa gogoan hartzeko eskatu du, lau urte dituztela aurrean, emankorrak izango direnak, baina horretarako baldintza dela dio denak elkar hartuta aurrera egitea.

Amaitu du esanez: “Animo eta eutsi Usurbil!”

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du eguerdiko 12:20ean eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.